**Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa puntuala.**

2ª modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana.



| | |
|---|---|
| **ESPEDIENTEA** EXPEDIENTE | **1HI-004/22-P03-A** |
| **TXOSTENA** PONENCIA | **Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza** Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana |
| **GAIA** ASUNTO | **Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa puntuala** 2ª modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana |
| **UDALA** LOCALIDAD | **Aramaio** A.F - Deba Goieneko E.F. |

**Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa puntuala.**

2ª modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana.

LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN: eraikinen distantziak, landaketak

IBARRAN

HIRITAR LURZORUAN: IB.07, IB.08

ARAUDIAN: zortasun aeronautikoak, katalogoa






ALDAKETEN KOKAPENAK

**Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa puntuala.**

2ª modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana.





IB.07 EREMUA




INDARREAN DAGOEN PLANEAMENDUA

**3. Burutzapenerako araubide iragankorra**

IB.07.1 lursail multzoa Zuzkidura-jarduketa eremu gisa ezarriko da.

Eremu horretan, dagokion zuzkidura karga jasotzea egingo da 2/2006 Legeko 25.2 artikuluaren arabera egingo da, eta 2/2006 79.1 artikuluaren eta 123/2012 Dekretuko 5,6,7 eta 8 artikuluen arabera justifikatu beharko da




PROPOSATZEN DEN PLANEAMENDUA






**Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa puntuala.**

2ª modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana.



IB.08 EREMUA












INDARREAN DAGOEN PLANEAMIENDUA

PROPOSATZEN DEN PLANEAMIENDUA

| XIV. | B.3. ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKOA ETA NATURGUNEAK BABESTEKO ARAUAK (3. LIBURUA) |
|---|---|

XIV.1. **CAPÍTULO 3.1.3. BABES ARAUBIDEA**

| EGUNGO ARAUDIA | ARAUDI BERRIA |
|---|---|
| **3.1.3.1 ARTIKULUA. INTERES HISTORIKO ETA ARKITEKTONIKOKO ONDAREA BABESTEKO ARAUBIDEA** | |
| 3. Monumentu izendatzeko babesteko proposamena duten elementuek (Inbentarioan jasotako historia eta arkitektura intereseko ondasunak) eta udalak babesteko proposatutako ondasunek (Inbentarioan jasotako historia eta arkitektura intereseko ondasunak) honako babes irizpideak beteko dituzte: | 3. Monumentu izendatzeko babesteko proposamena duten elementuek (Inbentarioan jasotako historia eta arkitektura intereseko ondasunak) eta udalak babesteko proposatutako ondasunek (Inbentarioan jasotako historia eta arkitektura intereseko ondasunak) honako babes irizpideak beteko dituzte: |
| b. Udalak zaintzeko proposatutako ondasun higiezinak:<br>Higiezin horietan egiten diren obrek bolumetria, kanpoko irudia eta oinarrizko tipologia eta egiturazko banaketa beteko dituzte eta egituraren material orokorra gordeko dute. Horretarako, erreferentzia Finkatzea edota Finkatzea eta Apaintzea deitutako esku-hartzeak izango dira, ondare urbanizatua eta eraikia zaharberritzeko eskuhartze babestuei buruzko 317/2002 Dekretuak jasotako "Zaharberritzeko esku-hartzeak" izeneko I eranskinean zehaztutakoari jarraiki. Halaber, zaharberritzeko esku-hartzeak ere onartuko dira. | b. Udalak zaintzeko proposatutako ondasun higiezinak:<br>Higiezin horietan egiten diren obrek bolumetria, kanpoko irudia eta oinarrizko tipologia eta egiturazko banaketa beteko dituzte eta egituraren material orokorra gordeko dute. Horretarako, erreferentzia Finkatzea edota Finkatzea eta Apaintzea deitutako esku-hartzeak izango dira, ondare urbanizatua eta eraikia zaharberritzeko eskuhartze babestuei buruzko 317/2002 Dekretuak jasotako "Zaharberritzeko esku-hartzeak" izeneko I eranskinean zehaztutakoari jarraiki. Halaber, zaharberritzeko esku-hartzeak ere onartuko dira.<br>Horiek guztiak barne bilduak egongo dira urbanizatutako eta eraikitako, eta ondare historiko arkitektonikoaren zerbitzuaren edo ondare historikoaren babeseko arloan eskudun den organoaren aldeko txostena izanda beste eraikuntza eraberritze edo moldaketa esku-hartzeetako ondarean babestutako jarduketei buruzko 317/2002 dekretuak. |

KATALOGOA

Testu berria

## Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. aldaketa puntuala.

2ª modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana.







Aramaioko udal-mugartean lurrak berak aeronautikako zortasunak urratzen dituen eremuetan edo lursaila zortasun aeronautikoak mugatzen dituzten azaleretatik hurbil dagoenean, eta, bereziki, udalerriaren hegoaldeko mutu-rrean dagoen Lurzoru Urbanizaezinean, ezin da eraikuntza, instalazio, lursailaren aldaketa edo objektu finkorik egin (zutoinak, antenak, kartelak, aerosorgailuak, siloak, garraio-linea elektrikoak eta abar). Ezta lehendik zeudenak altueran handitzea ere, Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoak urra badaitezke.

Zortasun aeronautikoen planoetan bilbe baten bidez adierazten dira lurrak berak zortasun horiek urratzen dituen eremuak, bai eta Gasteizko Aireportuko zortasun aeronautikoak mugatzen dituzten azaleren maila-lerroak ere, Aramaioko udalerriari eragiten diotenak eta altuerak zehazten dituztenak (itsas mailarekiko), zeinak ez baitu inolako eraikuntzarik gainditu behar (horien elementu guztiak barne direla, hala nola, tximinia-antenak, paraerraiak, eta abar) ezta lurraren edo objektu finkoen aldaketak (zutoinak, antenak, aerogeneradoreak, horien palak edo energia berriztagarriak ekoizteko beste instalazio tekniko batzuk, kartelak, etab. Halaber, bidegaliboa edo trenbidea, Aire Segurtasunerako Estatu Agentziaren (AESA) iritziz, aireontzien operazioen erregulartasunari ez zaiola nabarmen eragiten eta segurtasuna ez duela arriskuan jartzen egiaztatzen ez bada, 584/72 Dekretuan, egungo idazketan, jasotako salbuespenekin.

Zortasun aeronautikoek ezarritako mugek eta baldintzek ez badute ahalbidetzen aurreikusitako eraikuntzak edo instalazioak gauzatzea, ez da kalte-ordainerako inolako eskubiderik sortuko Sustapen Ministerioaren aldetik, ez aireportuko kudeatzailearen aldetik, ez eta Aireko Nabigazio Zerbitzuen emailearen aldetik ere, salbu eta dagoeneko ondaretuta dauden eskubideei eragiten badie.

Aldaketa puntualaren hirigintza-araudian edo hirigintza-araudiaren eta bertan jasotako planoen artean kontraesanik badago, zortasun aeronautikoek ezarritako mugak edo baldintzak nagusituko dira hirigintza-plangintzan jasotako beste edozein xedapenen gainetik.

**ZORTASUN AERONAUTIKOAK**

Idazkera berria 1.6.2.3. artikuluan: BALDINTZA GAINJARRIAK DITUZTEN EREMUETAN ETA LURZORU URBANIZAEZINAREN AZPI-MAILAKETAN ERABILERA ETA ERAIKINEI EZARRITAKO MUGA GEHIGARRIAK

ZORU EZ URBANIZAGARRIA

| ARTÍCULO 1.6.2.7. NEKAZAL USTIAPEN ARRUNTAK. ERAIKIN ETA HIRIGINTZA PARAMETRO BEREZIAK. | |
|---|---|
| 1. Nekazaritzako ustiapenerako eraikinak. | 1. Nekazaritzako ustiapenerako eraikinak. |

Lehendik dauden nekazaritza ustiategiei zein berriei lotutako erabilera horietarako eraikin berriek honako baldintzak bete beharko dituzte:

Eraikuntza lagungarri irekiak honako baldintzak betez ezarriko dira:

ERAIKINEN DISTANTZIAK

Testu berria

e.1) Gutxieneko tarteak:

i) Lurzoru urbanizaezinaren mugara: 100 m.

Aurreko distantzia hau erdira murriztu ahalko da nekazal eta abeltzantza ekoizpenerako orientazio nagusia duten biztanleguneetan (Abelatzantzako ustiapenen osasun eta higiene arauak ezartzen diren irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren 1. ERANSKINAREN 2. KAPITULUKO kokapen arauen 2. atalean datorrenarekin bat eginez).

ii) Beste finka batzuetan dauden landaz besteko eraikinetara:100,00m..

Aurreko distantzia hau erdira murriztu ahalko da nekazal eta abeltzantza ekoizpenerako orientazio nagusia duten biztanleguneetan (Abelatzantzako ustiapenen osasun eta higiene arauak ezartzen diren irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren 1. ERANSKINAREN 2. KAPITULUKO kokapen arauen 2. atalean datorrenarekin bat eginez)

ZORU EZ URBANIZAGARRIA

**XII. B.1. ARAU OROKORRAK (1GO LIBURUA). SEIGARREN TITULUA: ERABILERA ETA ERAIKUNTZA ORDENANTZAK LURZORU URBANIZAEZINEAN**

XII.1. **1.6.2. KAPITULUA.- LANDA-EREMUETAKO ERABILERA ETA ERAIKUNTZEI BURUZKO ORDENANTZAK. J.1-BABES BEREZIKOAK ETA J.2-PRESERBATUAK**

| EGUNGO ARAUDIA | ARAUDI BERRIA |
|---|---|
| **1.6.2.2. ARTIKULUA. BABES BEREZIKO J1 ETA BABESTUTAKO J2 LANDA EREMUETAN KALIFIKAZIO OROKORRAK BAIMENDUTAKO ERAIKUNTZAKO ERABILERAK ETA JARDUERAK** | |
| 6. Usos autorizados en la zona J.1.4. Zona de especial protección por su valor forestal. | 6. Usos autorizados en la zona J.1.4. Zona de especial protección por su valor forestal. |
| 9. Natura interesa dela-eta babestutako J.2.1. eremuan baimentzen diren erabilerak. | 9. Natura interesa dela-eta babestutako J.2.1. eremuan baimentzen diren erabilerak. |
| 12. Nekazaritza eta abeltzaintza arloko interesa dela-eta babestutako J.2.5. eremuan baimentzen diren erabilerak. | 12. Nekazaritza eta abeltzaintza arloko interesa dela-eta babestutako J.2.5. eremuan baimentzen diren erabilerak. |

l) Baimentzen dira baso jarduerak aurretik zuhaitz-masak okupatutako partzeletan. Azken baso landaketatik gehienez bi urteko denboraldi bat ezartzen da. Bertan dagoen zuhaitz masa tokikoa bada, errespetatu egin beharko da baso begetazio berria ere tokikoa izatea.
Baso okupazioaren aurretik egiaztatu egin beharko da interesdunaren aldetik, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saileri edo, momentu horretan, gaia horretan eskudunari dagokion ziurtagiriaren bidez.
Azkenik, 11/2007 foru arauaren 56 artikulua aplikatuaz, eta higaduraren eta arro hidrografikoen aurkako babes-arrazoiak direla-eta, Arabako Foru Aldundiak nahitaezko baso-landaketak egitea erabaki ahal izateko aukera zabalik uzten da, dagokion espedientea egin ondoren.

m) Uda- mugarteko lurzoru guztian debekatua dago eukaliptoa landatzea.

LANDAKETAK

Testu berria

ZORU EZ URBANIZAGARRIA

| | |
|---|---|
| XII. | B.1. ARAU OROKORRAK (1GO LIBURUA). SEIGARREN TITULUA: ERABILERA ETA ERAIKUNTZA ORDENANTZAK LURZORU URBANIZAEZINEAN |

XII.1. **1.6.2. KAPITULUA.- LANDA-EREMUETAKO ERABILERA ETA ERAIKUNTZEI BURUZKO ORDENANTZAK. J.1-BABES BEREZIKOAK ETA J.2-PRESERBATUAK**

| EGUNGO ARAUDIA | ARAUDI BERRIA |
|---|---|
| **ARTÍCULO 1.6.2.9. USOS FORESTALES** | |
| 1. Zein ere den egin nahi den zona, baso erabileraren arauketa gaian eskumena duen administrazioak (Arabako Foru Aldundiko sailetatik, nekazaritza eta mendien eskumena duena, etab.) ezarritako irizpideei lotuko zaie.<br>Edonola ere, galarazita dago etxe, baserri, hirigune eta landa herriguneetatik 100 metro baino gutxiagora zuhaitz sail estentsiboak landatzea.<br>2. Zuhaitz sailak batez ere lurraldeak nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenerako edo balizko beste erabilera batzuetarako ematen duen gaitasuna koloka jartzen ez den tokietan jarriko dira. | Etxebizitza eraikinetatik, baserrietatik, hiri-eremuetatik eta nekazal -nukleoetatik 100 metro baina gutxiagora landaketa estentsiboak debekatuta daude. Hartara, landaketa estentsiboak dira hurrengo baldintzak gainditzen dituztenak:<br>• 200 landaketa hektareako zuhaitzen dentsitatea.<br>• Zuhaitzen artean 7x7metroko oineko esparrua.<br>• 15 metroko altuera.<br>Aurreko mugak gainditzen ez dituen zuhaitziak, 100 metro baino gutxiagora landatu daitezkeenak, kasu guztietan tokiko begetazio izan beharko dira. |

LANDAKETAK

Idazkera berria